



## La creciente presencia de la mujer en el mercado de trabajo no logra romper el desequilibrio existente en la distribución de los roles domésticos


### Nahiz eta lan-merkatuan gero eta emakume gehiago dagoen, ez da hautsi etxeko rolen banaketan bi sexuen artean dagoen desoreka

La manera de distribuir el tiempo diario depende tanto de los condicionantes vitales y gustos personales como de las disponibilidades que ofrezca el entorno familiar y social. Sin embargo, la forma de conjugar todos estos condicionantes, disponibilidades y circunstancias personales va a tener mucho que ver con dos determinantes fundamentales de la vida cotidiana: el sexo y la relación con la actividad.

La sociedad vasca, a pesar de la creciente presencia de la mujer en el mercado de trabajo, sigue colocando a los varones en la esfera de los trabajos remunerados, mientras reserva mayoritariamente para las mujeres las actividades no remuneradas.

Pertsona bakoitzak denbora egun batean nola banatzen duen bizi-baldintzen eta norberaren gustuen menpe dago, bai eta bere gizartezein familia-inguruan eskura dituen aukeren menpean ere. Dena dela, bakoitzaren baldintza, aukera eta gora-behera horiek guztiak uztartzeko moduak, betiere, zerkusi handia izango du eguneroko bizitzako oinarritzko bi osagairekin: sexua-rekin eta lana edukitzearekin.

Lan-merkatuan gero eta emakumezko gehiago egon arren, oraindik ere, gizonezkoak jartzen ditu euskal gizarteak lan ordainduen eremuan; jardura ordaindu gabe gehienak, aldiz, emakumeentzat gordetzen ditu.





Tomando como un buen indicador de esta situación la evolución de la tasa de actividad de las mujeres desde 1985, se ve que en la C. A. de Euskadi esta tasa ha aumentado 10 puntos en los últimos 12 años, mientras la de los varones, seguramente como consecuencia de las jubilaciones anticipadas y la ampliación de los años de estudio, ha disminuido 8 puntos.

Aunque todavía nos hallemos muy lejos de las tasas de actividad femenina que tienen países como Dinamarca, Francia, Alemania o Reino Unido, es indudable que estamos dentro de un proceso creciente de incorporación de la mujer al mercado de trabajo remunerado.

Egoera horren adierazletzat, emakumeen lan-tasak 1985etik izan duen bilakaera hartzen badugu, ikusiko dugu Euskal AEn tasa hori 10 puntu igo dela azken 12 urteetan; gizonezkoena, berriz, 8 puntu jaitsi da; ziurrenik, aurreratutako erretiroei eta ikasketa-urteen luzapenari esker.

Nahiz eta oraindik oso urrun gauden beste herrialde batzuek dituzten emakumezkoen lan-tasetatik —hala nola, Danimarkak, Frantziak, Alemaniak edo Erresuma Batuak dituztenetatik—, ez dago zalantzarik emakumeak gero eta gehiago sartzen ari direla lan-merkatu ordainduan.


## Las mujeres tienen menos tiempo para el ocio y la relación con los demás


De todas formas, esta tendencia inequívoca hacia la equiparación entre sexos no puede esconder el desequilibrio que todavía existe en la actual estructura del mercado de trabajo. Como muestra el gráfico, las mujeres dedican mucho menos tiempo que los hombres a las actividades productivas remuneradas y bastante más tiempo que éstos a las actividades no remuneradas o de reproducción.

## Emakumeek denbora gutxiago dute aisialdirako eta besteekiko harremanetarako

Ez dago zalantzarik, beraz, sexuak parekatuz doazela; parekatze-joera horrek, nolanahi ere, ez dezake ezkuta oraindik ere, gaur egun, lan-merkatuaren egituran dagon desoreka. Grafikoak erakusten duenez, emakumezkoek gizonezkoek baino denbora gutxiago eskaintzen diete produkzio-jarduera ordainduei, eta horiek baino askoz denbora gehiago jarduera ordaindu gabeei.

**Sexukako diferentziak eguneko denboraren banaketan**  
Diferencias por sexo en la distribución del tiempo diario





Dejando aparte el tiempo que se dedica diariamente a cubrir las necesidades fisiológicas básicas, como comer, dormir y asearse, en las que no hay prácticamente ninguna diferencia entre varones y mujeres (y las pocas que hay se deben más a otras variables que al sexo), el desequilibrio es notorio cuando se ve el tiempo que mujeres y varones dedican al trabajo productivo y a las actividades de ocio. En concreto, si se pudiera hablar, aunque sólo sea como recurso analítico, de un día promedio semanal y de una persona tipo, se vería que el diferencial femenino es de casi 2 horas y media más en el apartado de los trabajos domésticos.

Sumando todo el tiempo dedicado a las diferentes actividades productivas, remuneradas o no (trabajo, formación, tareas domésticas, cuidados a personas y trayectos), nos encontramos con que las mujeres trabajan diariamente 59 minutos más que los hombres. La contrapartida no puede ser otra, las mujeres disponen de 59 minutos diarios menos que los hombres para dedicarlos a las actividades de ocio y de relación.

Pero, evidentemente, ni el día promedio ni la persona tipo existen en la realidad. Son ficciones estadísticas que sirven para hacer una descripción genérica, pero que no tienen en cuenta ni las diferencias que introducen los determinantes de la vida cotidiana ni el hecho de que existen al menos dos tipos de jornadas radicalmente distintas: las que configuran los días laborables y las del fin de semana.

### En muchas mujeres que han accedido al mercado de trabajo recae casi todo el peso del trabajo doméstico

En principio se podría pensar que el desequilibrio en la distribución del trabajo remunerado y en los roles domésticos debería desaparecer cuando la mujer empieza a trabajar fuera de casa, pero no es así. Durante los días laborables la desigualdad se mitiga bastante, debido a la inercia que impone la actividad laboral, pero durante el fin de semana, cuando esta inercia desaparece, las diferencias se multiplican.

**Diferentziak eguneko denboraren banaketan, sexuka. (hh:mm)**  
 Diferencia en la distribución del tiempo diario por sexo. (hh:mm)

	GIZONEZKOAK VARONES	EMAKUMEZKOAK MUJERES	EMAKUMEZKOEN ALDEA DIFERENCIAL FEMENINO
<b>Lana eta prestakuntza</b> Trabajo y formación	4:16	2:26	-1:50
<b>Etxeko lanak</b> Trabajos domésticos	1:10	3:37	+2:27
<b>Lagunez arduratzea</b> Cuidados a personas	0:14	0:26	+0:12
<b>Gizarte-harremanak</b> Vida Social	1:08	0:58	-0:10
<b>Aisia aktiboa eta kirolak</b> Ocio activo y deportes	1:23	1:02	-0:21
<b>Aisia pasiboa (telebista, irakurtzea,...)</b> Ocio pasivo (televisión, lectura,...)	3:03	2:45	-0:18
<b>Joan-etorriak</b> Trayectos	1:15	1:05	-0:10

Egunean oinarrizko fisiologi beharrak estaltzeari —jateari, lo egiteari eta txukuntzeari— eskaintzen zaion denboran, ia ez dago inolako diferentziarik gizonetzkoen eta emakumezkoen artean, eta dauden aldeak sexuaz besteko aldagaiak eragiten dituzte. Diferentzia horiek alde batera utzita, ikusten denean zenbat denbora eskaintzen dieten emakumezkoek eta gizonetzkoek produkzio-lanari eta aisialdiko jardueri, desoreka nabarmena da. Horrela, baliabide analitiko gisa soilik bada ere, aste-batez besteko egun bat eta eredu-zko pertsona bat izango bagenitu, ikusiko genuke emakumezkoen aldea ia 2 ordu eta erdikoa dela etxeko lanen atalean.

Produkzio-jarduera guztiei, ordainduei eta ordaindu gabeei (lana, prestakuntza, etxeko lanak, lagunez arduratzea eta joan-etorriak), eskainitako denbora guztia baten badugu, ikusiko dugu emakumezkoek, egunean, gizonetzkoek baino 59 minutu gehiago lan egiten dutela. Txanponaren ifrentzua begi-bistakoa da: emakumezkoek gizonetzkoek baino 59 minutu gutxiago dituzte aisialdiko jardueri eta gizarte-harremanei eskaintzeko.

Baina, bistan da benetan ez dagoela batez besteko egunik eta eredu-zko pertsonarik. Horiek fikzio estatistikoak dira, deskribapen orokor bat egiteko balio dutenak, baina eguneroko bizitzak sartzan dituen baldintzak kontuan hartzen ez dituztenak. Gainera, ez dute kontuan hartzen gutxienez bi lanaldi-mota guztiz desberdin dardela: lanegunek osatzen dituztenak eta asteburukoak.

Baina, bistan da benetan ez dagoela batez besteko egunik eta eredu-zko pertsonarik. Horiek fikzio estatistikoak dira, deskribapen orokor bat egiteko balio dutenak, baina eguneroko bizitzak sartzan dituen baldintzak kontuan hartzen ez dituztenak. Gainera, ez dute kontuan hartzen gutxienez bi lanaldi-mota guztiz desberdin dardela: lanegunek osatzen dituztenak eta asteburukoak.

### Lan-merkatuan sartu diren emakume askorengan, etxeko lanaren ia pisu osoa erortzen da

Hasiera batean pentsa liteke, emakumea etxetik kanpo lan egiten hasten denean, lan ordainduaren eta etxeko rolen banaketan dagoen desoreka desagertu egin beharko litzatekeela; baina, ez da horrelakorik gertatu. Lanegunetan, desberdintasuna asko murrizten da, lan-jarduerak ezartzen duen inertziagatik; baina, asteburuan, inertzia hori desagertzen denean, diferentziak areagotu egiten dira.



En efecto, como se ve con claridad en el gráfico, que muestra la radiografía diaria de las actividades de los ocupados y de las ocupadas durante un día laborable, el área que representa el tiempo de dedicación a las tareas domésticas de las mujeres es bastante más amplia que el área que representa el de los varones.

Todo esto refleja que muchas mujeres ocupadas tienen que afrontar una situación de doble jornada laboral, primero en el centro de trabajo, desarrollando su trabajo profesional, y luego en su casa, haciendo las tareas domésticas. Quizá lo más relevante de estas radiografías, además de la escasa presencia de actividad laboral de las mujeres ocupadas en horario nocturno, sea que mientras a las 8:30 de la mañana de un día laborable ya están trabajando prácticamente la mitad de los varones ocupados, a esa misma hora sólo lo están el 30% de las mujeres ocupadas, y hay que esperar hasta las 9:30 de la mañana para encontrar también trabajando un porcentaje similar de mujeres ocupadas.

De todas formas, tomando como base de comparación el total de tiempo de trabajo, independientemente de su carácter remunerado o no, el desequilibrio durante los días laborables es más aparente que real, ya que, efectivamente, las mujeres ocupadas dedican 1 hora y 40 minutos más que los varones ocupados a las tareas domésticas y al cuidado de personas del hogar, pero también dedican 1 hora y 38 minutos menos a su trabajo profesional fuera de casa. Además, comparando los datos de la Encuesta de Presupuestos de Tiempo de 1993 con los de la de 1998, se aprecia una clara tendencia hacia la equiparación del tiempo de trabajo entre varones y mujeres ocupados, si bien se mantiene el desequilibrio en la distribución entre trabajo del hogar y trabajo remunerado.

### Los fines de semana, la participación de los varones ocupados en las tareas domésticas es la mitad que la de las mujeres ocupadas

En términos generales, durante los días festivos, la participación doméstica de los varones ocupados está muy por debajo de la participación de las mujeres en su misma situación laboral. En efecto, mientras los varones ocupados reducen en torno a un 80% el tiempo dedicado al trabajo durante el fin de semana, las mujeres ocupadas apenas lo reducen un 45%.


Izan ere, grafikoan argi eta garbi ikusten denez, emakumezkoek etxeko lanei eskaintzen dieten denbora irudikatzen duen arloa gizonezkoena irudikatzen duena baino askoz zabalagoa da. Grafiko horrek gizonezko eta emakumezko landunen jardueren eguneroko erradiografia erakusten du.

Horrek guztiak erakusten du emakumezko landunek *lanaldi bikoitzeko* egoera bati egin behar diotela aurre: aurrena, lantokian, beren lan ordaindua burutuz; eta gero, etxean, etxeko lanak eginez. Erradiografia horretan ikusten denez, emakume landun gutxi dago gaueko lanaldian; baina horretaz gain, beste honako hau ere argi eta garbi ikusten da: lanegun batean, goizeko 8:30tan, gizonezko landunen ia erdiak lanean daude; ordu horretan berean, emakumezko landunen % 30 baino ez dade lanean, eta 9:30ak arte itxaron behar da emakumezko landunen antzeko kopuru bat lanean aurkitzeko.

Dena dela, konparazio-oinarritzat lan egindako guztizko denbora hartzen bada, lan hori ordaindua edo ordaindu gabea den alde batera utzita, lanegunetako desoreka ez litzateke egiazkoa, itxurazkoa baizik. Izan ere, emakumezko landunek gizonezko landunek baino 1 ordu eta 40 minutu gehiago eskaintzen diete etxeko lanei eta etxeko lagunez arduratzeari; baina, era berean, 1 ordu eta 38 minutu gutxiago eskaintzen diote etxeko lan ordainduari. Gainera, Denbora Aurrekontuen Inkestako 1993ko datuak 1998koekin konparatzen badira, ikusten da lanaldiak parekatzen ari direla, gizonezkoen eta emakumezkoen artean; nahiz eta, etxeko lanaren eta lan ordainduaren arteko banaketan dagoen desoreka ez den aldatu.

### Asteburuetan, gizonezko landunek etxeko lanetan duten parte-hartzea emakumezko landunek dutenaren erdia da


Oro har, gizonezko landunek etxeko lanetan duten parte-hartzea, jaiegunetan, egoera berean dauden emakumezkoen parte-hartzea baino askoz txikiagoa da. Izan ere, gizonezko landunek % 80 inguru murrizten dute lanari eskaintako denbora asteburuetan; emakumezko landunek, aldiz, % 45 baino ez dute murrizten.




Además, esta diferenciación de los roles domésticos se hace más evidente cuando se ve qué tipo de actividades realiza cada uno, cuánto tiempo le dedican cuándo las hacen, así como la tasa de participación, es decir, el porcentaje de personas que las realiza. La participa-

Gainera, etxeko rolen arteko diferentzia hori are nabarmenago bihurtzen da, ikusten denean nolako jarduerak egiten dituen bakoitzak, zenbat denbora eskaintzen dieten egiten dituztenean, bai eta parte-hartze tasa ere, hau da, egiten dituzten pertsonen ehunekoa. Oinarrizko

**Gizonezko landunen eguneko jardueren banaketa. (Lanegunak)**  
 Distribución de las actividades de los varones ocupados. (Días laborables)



**Emakumezko landunen eguneko jardueren banaketa. (Lanegunak)**  
 Distribución de las actividades de las mujeres ocupadas. (Días laborables)




- **Fisiologi beharrak**  
Necesidades fisiológicas
- **Lana eta prestakuntza**  
Trabajo y formación
- **Etxeko lanak**  
Tareas domésticas
- **Lagunez arduratzea**  
Cuidados a personas
- **Gizarte-harremanak**  
Vida social
- **Aisia aktiboa**  
Ocio activo
- **Aisia pasiboa**  
Ocio pasivo
- **Joan-etorriak**  
Trayectos




ción de las mujeres ocupadas en las tres tareas domésticas esenciales, preparar la comida, hacer la limpieza de la casa y realizar las compras, es mayoritaria mientras que la de los hombres se centra en otros trabajos domésticos menudos como gestiones, arreglos y semi-ocios.

etxe lanetan (otorduak prestatzea, etxe lanak egitea eta erosketak egitea), emakumezko landun gehienek parte hartzen dute; gizonetzkoen parte-hartzea, aldiz, etxe lan txikietan biltzen da, hala nola kudeaketak, konponketak eta erdi-aisiak.

**Gizonezko landunen eguneko jardueren banaketa. (Jaiegunak)**  
Distribución de las actividades de los varones ocupados. (Días festivos)



**Emakumezko landunen eguneko jardueren banaketa. (Jaiegunak)**  
Distribución de las actividades de las mujeres ocupadas. (Días festivos)



**Fisiologi beharrak**  
Necesidades fisiológicas

**Gizarte-harremanak**  
Vida social

**Lana eta prestakuntza**  
Trabajo y formación

**Aisia aktiboa**  
Ocio activo

**Etxeko lanak**  
Tareas domésticas

**Aisia pasiboa**  
Ocio pasivo

**Lagunez arduratzea**  
Cuidados a personas

**Joan-etorriak**  
Trayectos



## Landunek etxeko lanei eskaintzen dieten denbora, egunaren arabera Dedicación de los ocupados a las diferentes tareas domésticas, según el día

	BATEZ BESTEKO GIZARTE-DENBORA (hh:mm) TIEMPO MEDIO SOCIAL		PARTE-HARTZAILEKO BATEZ BESTEKO DENBORA (hh:mm) TIEMPO MEDIO PARTICIPANTE		PARTE-HARTZE TASA (%) TASA DE PARTICIPACION	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
	Varón	Mujer	Varón	Mujer	Varón	Mujer
<b>OTORDUAK PRESTATZEA</b>						
PREPARAR COMIDAS						
Lanegunak / Laborables	0:18	0:56	0:40	1:11	45,0	78,9
Larunbatak / Sábados	0:22	0:57	0:48	1:18	45,8	73,1
Igandeak / Domingos	0:27	1:00	0:54	1:17	50,0	77,9
<b>GARBIKETA</b>						
LIMPIEZA						
Lanegunak / Laborables	0:04	0:32	0:30	0:53	13,3	60,4
Larunbatak / Sábados	0:12	0:35	0:43	1:01	27,9	57,4
Igandeak / Domingos	0:09	0:33	0:37	0:57	24,3	57,9
<b>ARROPA</b>						
ROPA						
Lanegunak / Laborables	0:02	0:20	0:25	0:48	8,0	41,7
Larunbatak / Sábados	0:02	0:19	0:25	0:56	8,0	33,9
Igandeak / Domingos	0:05	0:25	0:37	0:56	13,5	44,6
<b>BESTE KONPONKETAK</b>						
OTROS ARREGLOS						
Lanegunak / Laborables	0:04	0:02	0:34	0:17	11,8	11,8
Larunbatak / Sábados	0:04	0:08	0:31	0:35	12,9	22,9
Igandeak / Domingos	0:05	0:05	0:36	0:34	13,9	14,7
<b>EROSKETAK</b>						
COMPRAS						
Lanegunak / Laborables	0:11	0:21	0:43	0:52	25,6	40,4
Larunbatak / Sábados	0:20	0:35	0:50	1:14	40,0	47,3
Igandeak / Domingos	0:06	0:05	0:20	0:21	30,0	23,8
<b>KUDEAKETAK</b>						
GESTIONES						
Lanegunak / Laborables	0:02	0:01	0:45	0:22	4,4	4,5
Larunbatak / Sábados	0:01	0:01	0:32	0:27	3,1	3,7
Igandeak / Domingos	0:01	0:01	1:58	0:17	0,8	5,9
<b>ERDI-AISIAK</b>						
SEMI-OCIOS						
Lanegunak / Laborables	0:10	0:09	1:28	1:05	11,4	13,8
Larunbatak / Sábados	0:16	0:10	1:56	1:13	13,8	13,7
Igandeak / Domingos	0:18	0:06	1:31	0:54	19,8	11,1

**Batez besteko gizarte-denbora:** 16 urte eta gehiagoko biztanleriak jarduera jakin bati batez beste eskaintzen dion denbora.

*Tiempo medio social:* Tiempo medio que dedica la población de 16 y más años a una actividad concreta durante un día determinado.

**Parte-hartzaileko batez besteko denbora:** 16 urte edo gehiagoko biztanleriak jarduera jakin bati batez beste eskaintzen dion denbora, aztergai den egunean horrelakorik egiten badu.

*Tiempo medio participante:* Tiempo medio que dedica a una actividad concreta la población de 16 y más años que sí la realiza durante el día considerado.

**Parte-hartze tasa:** 16 urte edo gehiagoko biztanleriatik, zenbatak egiten duten jarduera jakin bat aztergai den egunean.


*Tasa de participación:* Porcentaje de personas de 16 y más años que realiza una actividad concreta durante el día considerado.

### Los hombres disfrutan un 25% más de tiempo libre que las mujeres

Como ya se vió en los gráficos anteriores, el ciclo semanal de las actividades de los ocupados marca con claridad un contraste radical entre el tiempo de trabajo profesional de los días laborables y el tiempo de ocio y de relación de los sábados y días festivos. Pero en el caso de las mujeres ocupadas este contraste se desdibuja bastante durante el fin de semana por el aumento de la carga de trabajo doméstico.

### Gizonezkoek emakumezkoek baino % 25 aisialdi luzeagoa gozaten dute

Lehenengo grafikoetan ikusi zenez, landunen jardueren asteko zikloak argi eta garbi erakusten du nolako alde dagoen lanegunetako lanaldiaren eta aisialdiaren artean, eta nolako lotura dagoen larunbaten eta jaiegunen artean. Emakumezko landunen kasuan, ordea, alde hori ez da hain nabarmena asteburuan, etxeko lanen karga igotzeagatik.



Aunque los días festivos tanto las mujeres como los varones ocupados incrementan notablemente su tiempo libre, éstos lo hacen en mayor medida que aquéllas. Y así, el diferencial femenino en actividades de ocio y de relación, que durante los días laborables era de 24 minutos menos, se eleva durante el fin de semana hasta 1 hora y 31 minutos. Es, en efecto, durante el fin de semana cuando las diferencias entre varones y mujeres ocupados aparecen con toda nitidez.

La utilización del tiempo libre de los ocupados es curiosamente bastante parecida. Las diferencias en los tres apartados de ocupación del tiempo libre ponen de manifiesto que las mujeres ocupadas disfrutan en cada apartado de un 75% del tiempo libre de los varones ocupados, y ambos dedican casi la mitad de su tiempo libre total a las actividades de ocio pasivo. Parece como si hubiera un modelo de distribución del tiempo libre que, independientemente de la cantidad disponible, hiciera que éste se distribuya primando a las actividades de ocio pasivo sobre las actividades de relación y a éstas sobre el ocio activo y deportes.

Nahiz eta jaiegunetan emakumezko zein gizonezko landunek nabarmen gehitzen duten aisialdia, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago gehitzen dute. Eta horrela, aisialdian eta harremanetan emakumezkoek duten

aldea igo egiten da asteburuan, 1 ordu eta 31 minutu arte; lanegunetan, alde hori 24 minutu gutxiagokoa zen. Izan ere, asteburuetan agertzen dira argi eta garbi gizonezko eta emakumezko landunen artean dauden aldeak.

Landunek aisialdia zertan erabiltzen duten, bitxia bada ere, oso berdintsua da. Aisialdiaren erabilerari buruzko hiru ataletan dauden diferen-

tzia argi eta garbi erakusten dute emakumezko landunek, atal bakoitzean, gizonezko landunen aisialdiaren % 75 gozaten dutela, eta biek guztizko aisialdiaren ia erdia aisia pasiboko jardueri eskaintzen dietela. Badi-rudi aisialdiaren banaketa-eredu bat dagoela. Eredu horren arabera, bakoitzak zenbat denbora duen alde batera utzita, denbora aisia pasiboko jarduera lehenetsiz banatzen da; ondoren, harremanetako jarduerak datoz; eta azkenik, aisia aktibokoak eta kiroletakoak.

### Diferentziak eguneko denboraren banaketan, sexua. (hh:mm). (Asteburua)

Diferencia en la distribución del tiempo diario por sexo. (hh:mm). (Fin de semana)

	GIZONEZKOAK VARONES	EMAKUMEZKOAK MUJERES	EMAKUMEZKOEN ALDEA DIFERENCIAL FEMENINO
<b>Lana eta prestakuntza</b> Trabajo y formación	1:53	2:09	+0:16
<b>Etxeko lanak</b> Trabajos domésticos	1:14	2:30	+1:16
<b>Lagunez arduratzea</b> Cuidados a personas	0:27	0:23	-0:04
<b>Gizarte-harremanak</b> Vida Social	1:59	1:37	-0:22
<b>Aisia aktiboa eta kirolak</b> Ocio activo y deportes	1:37	1:17	-0:20
<b>Aisia pasiboa (telebista, irakurtzea,...)</b> Ocio pasivo (televisión, lectura,...)	3:06	2:17	-0:49
<b>Joan-etorriak</b> Trayectos	1:20	1:17	-0:03

## Hombres y mujeres distribuyen su tiempo de ocio de forma muy similar

Un análisis más detallado confirma la existencia de esa especie de modelo que hace que de todo el tiempo dedicado a la vida social sean las *salidas* con amigos las que se llevan el 95%, tanto en el caso de los varones como en el de las mujeres ocupadas, quedando sólo el 5% restante para las prácticas cívicas y religiosas. Lo mismo sucede en el apartado del ocio activo donde los paseos, tanto en el caso de los varones como de las mujeres ocupadas, se llevan el 90%, y en el apartado del ocio pasivo donde también en ambos casos la televisión ocupa un 58%.

En definitiva, como ocurría en el apartado de los trabajos domésticos, también en el tiempo de ocio nos encontramos con una distribución cuantitativamente desigual, especialmente durante los fines de semana.

Si hiciéramos una especie de ranking, donde estuviesen ordenadas las diferencias respecto a la media de

## Gizonezkoek zein emakumezkoek berdintsu banatzen dute aisialdia

Azterketa sakon batek baieztatzen du eredu moduko hori badagoela. Horren arabera, gizarte-harremanei eskainitako denbora osotik, adiskideekin egiten diren *irteerrek* hartzen dute % 95, gizonezko zein emakumezko landunen kasuan; gainerako % 5 baino ez da geratzen herritar gisa eta erlijio-eginkizunetan parte hartzeko. Gauza bera gertatzen da aisia aktiboaren eta aisia pasiboaren ataletan: lehen atalean, *ibildiek* hartzen dute % 90, gizonezko zein emakumezko landunen kasuan; bigarren atalean ere, bi kasuetan, *telebistak* hartzen du % 58.

Azken batean, etxeko lanen atalean gertatzen zen bezala, aisialdian ere, kopuruari dagokionez, banaketa desberdina da; batez ere, asteburuetan.

Ranking moduko bat egingo bagenu, eta gizarte-talde bakoitzak, biztanleriaren batez bestekoaren aldean,




la población del tiempo que dedican a cada actividad los diferentes colectivos sociales, nos encontraríamos con la curiosidad de que las mujeres ocupadas son el colectivo que menos tiempo dedica a dormir, a comer y a ver la televisión.

Pero quizá sea en la representación espacial de las actividades cotidianas donde mejor queda definido el desequilibrio entre mujeres y varones, pues es bastante evidente que cada actividad aparece siempre asociada a un espacio conocido y familiar cuya identificación permite precisar el carácter sustancial de la actividad que en él se realiza.

jarduera bakoitzari zenbat denbora eskaintzen dion neurtuko bagenu, gauza bitxi batekin egingo genuke topo: emakumezko landunak dira lo egiteari, jateari eta telebista ikusteari denbora gutxien eskaintzen dioten taldea.


Baina, agian, eguneroko jardueren toki-irudikapenean agertzen da zehaztuena emakumezkoen eta gizonzkoen arteko desoreka, zeren argi baitago jarduera bakoitza toki jakin eta ezagun bati lotuta agertzen dela beti. Horrela, toki hori identifikatzen bada, erraza da bertan burutzen den jarduera funtsean nolakoa den zehaztea.

**Landunen aisialdiaren banaketa. (Jaieguna)**  
Distribución del tiempo de ocio de los ocupados. (Festivos)



En efecto, la representación espacial de las actividades pone de manifiesto que las mujeres ocupadas pasan los domingos 17 horas y 5 minutos dentro de la propia vivienda, mientras los varones ocupados sólo pasan 15 horas y 59 minutos. El resto del tiempo lo reparten entre los lugares de esparcimiento al aire libre, en torno a 4 horas los varones y 3 horas las mujeres, los bares y establecimientos hosteleros para comer o dormir, 2 horas en ambos casos, los lugares de esparcimiento cubiertos, el lugar de trabajo y la residencia secundaria.

Izan ere, jardueren toki-irudikapenak agerian uzten du emakumezko landunek 17 ordu eta 5 minutu igarotzen dituztela igandeetan euren etxebizitzan barruan; gizonzko landunek, aldiz, 15 ordu eta 59 minutu baino ez dituzte igarotzen. Denboraren beste zatia honela banatzen dute: aire zabaleko jolas-tokietan, 4 ordu inguru gizonzkoek eta 3 ordu emakumezkoek; tabernetan eta jateko edo lo egiteko hotel-establezimenduetan, 2 ordu biek kasuetan; jolas-toki estalietan; lantokian; eta bigarren etxebizitzan.



Incluso dentro de la propia vivienda se reproduce una peculiar representación espacial en la que cada espacio aparece asociado a una actividad concreta. Así, por ejemplo, las mujeres ocupadas pasan 30 minutos más en la cocina que los varones ocupados y 29 minutos más en las habitaciones, mientras pasan 34 minutos menos en el salón y 3 menos en el comedor.

Norberaren etxebizitzaren barruan ere toki-irudikapen bitxi bat birsortzen da, eta toki bakoitza jarduera jakin bati lotuta agertzen da. Horrela, esate baterako, emakumezko landunek gizonezko landunek baino 30 minutu gehiago igarotzen dute sukaldean; 29 minutu gehiago, geletan; egongelan, aldiz, 34 minutu gutxiago igarotzen dute; eta 3 gutxiago, jangelan.


### Todo apunta a una progresiva equiparación de los roles domésticos

Con relación a 1983, la situación actual de las mujeres ocupadas ha variado bastante. Como muestra el gráfico, el tiempo dedicado al trabajo profesional ha aumentado 26 minutos diarios y el dedicado a los desplazamientos 13 minutos. Casi en la misma medida ha disminuido el tiempo dedicado a las tareas domésticas, 30 minutos, y al cuidado de las personas del hogar, 2 minutos. Igualmente, se puede apreciar que en la distribución del tiempo de ocio ha aumentado el tiempo dedicado a pasear y hacer deporte, mientras ha disminuido el dedicado al ocio pasivo. Concretamente, las mujeres ocupadas ven actualmente la televisión 7 minutos menos que hace 5 años los días laborales y 17 minutos menos los festivos.


### Horri guztiaren arabera, etxeko rolak parekatuz joango dira

1983aren aldean, emakumezko landunen oraingo egoera asko aldatu da. Grafikoak erakusten duenez, lan ordainduari eskainitako denbora igo egin da (egunean 26 minutu); joan-etorriei eskainitakoa, berriz, 13 minutu. Etxeko lanei (30 minutu) eta etxeko lagunez arduratzeari (2 minutu) eskainitako denbora ia neurri berean jaitsi da. Era berean, ikus daiteke, aisialdiari eskainitako denboran, igo egin dela egurasteari eta kirola egiteari eskainitako denbora; aisia pasiboari eskainitakoa, aldiz, jaitsi egin da. Hain zuzen, emakumezko landunek duela 5 urte baino 7 minutu gutxiago ikusten dute telebista, lanegunetan, eta 17 minutu gutxiago, jaiegunetan.

**Eguneko denboraren banaketaren bilakaera (Emakumezko landunak)**  
Evolución en la distribución del tiempo diario. (Mujeres ocupadas)



**Eguneko denboraren banaketaren bilakaera (Gizonezko landunak)**  
 Evolución en la distribución del tiempo diario. (Varones ocupados)



En resumen, en la distribución del tiempo diario permanecen enquistadas grandes diferencias que se manifiestan, fundamentalmente, en la desigual dedicación al trabajo remunerado, por un lado, y al trabajo doméstico, por otro, pero cuando la mujer empieza a trabajar fuera de casa, el desequilibrio inicial prácticamente desaparece durante los días laborables, aunque vuelve a aparecer a lo largo del fin de semana.

Como sucede en los demás países europeos, el incremento progresivo del tiempo de trabajo profesional de las mujeres y la mayor participación de los hombres en las tareas domésticas están propiciando una progresiva equiparación de los roles domésticos. ■

Laburbilduz, eguneroko denboraren banaketan alde handiak daude, aspaldidanik. Alde horiek, funtsean, lan ordainduari, alde batetik, eta etxeko lanei, bestetik, eskaintzen zaion denboran agertzen dira; baina, emakumea etxetik kanpo lanean hasten denean, hasierako desoreka ia desagertu egiten da lanegunetan; desoreka hori, hala ere, berriro agertzen da asteburuetan.

Europako beste herrialdeetan gertatzen denez, emakumezkoek lan ordainduari eskaintzen dioten denbora pixkanaka gehitzen ari da, eta gizonezkoek gehiago parte hartzen dute etxeko lanetan; hori dela eta, etxeko rolak parekatzen ari dira pixkanaka. ■



Con los datos proporcionados por la Encuesta de Presupuestos de Tiempo, que EUSTAT realiza cada 5 años con los 5.000 diarios recogidos en otras tantas viviendas de la CAE, podemos cuantificar el tiempo que la población vasca, en general, y los diferentes grupos sociales, en particular, dedican diariamente a cada una de las actividades que realizan.

Reconocer que en una sociedad desarrollada, entre los 18 y los 65 años, disponemos de más de 60.000 horas libres, es decir, no ocupadas ni profesionalmente, ni en atender las necesidades fisiológicas, parece un argumento suficiente para que merezca la pena conocer cuáles son precisamente las actividades que ocupan el tiempo libre, en qué momento del día se realizan, dónde y con quién se hacen. Pero no sólo las actividades de ocio son objeto de esta encuesta, también lo son las actividades de trabajo y de formación, las tareas domésticas, el cuidado a personas, las necesidades fisiológicas y los trayectos; en definitiva, todas las actividades que alguien pueda realizar a lo largo del día.

Los datos de esta encuesta permiten dibujar con bastante precisión la vida cotidiana de los vascos, la secuencia de sus actividades, los desequilibrios existentes entre los diferentes grupos sociales, así como las diferencias en los ritmos de los días laborables y festivos. También posibilitan analizar cuestiones más genéricas, como el papel de la televisión en la sociedad moderna o la organización y distribución actual de las tareas domésticas, y necesidades más recientes como la medición del trabajo no remunerado con vistas a su inclusión en el PIB.

Denbora-Aurrekontuen Inkestak eskaintzen dizkigun datuen bidez, gure erkidegoko biztanleek, oro har, eta gizarte-talde bakoitzak, zehazki, burutzen duten jarduera bakoitzari egunean zenbat denbora eskaintzen dioten neur dezakegu. Inkesta hori bost urtean behin egiten du EUSTATEk, EAeko 5.000 etxebizitzatan jasotzen dituen beste hainbat egunkariaren bidez.

Gizarte garatu batean, 18 eta 65 urte bitartean, 60.000 ordu libretik gora dauzkagu, hau da, lanak edo eskolak betetzen ez dituzten eta fisiologi beharrei erantzuteko ez diren hainbat ordu. Hori aitortzeak nahikoa dirudi, hain zuzen, aisialdia zein jarduerak betetzen duten jakiteak merezi izateko, bai eta jarduera horiek eguneko zein ordutan, non eta norekin egiten diren jakiteko ere. Baina, inkesta honetan, ez dira soilik aisialdiko jarduerak agertzen; horiek ez ezik, laneko eta prestakuntzako jarduerak, etxeko lanak, lagunez arduratzeak, fisiologi beharrak eta joan-etorriak ere agertzen dira; azken batean, baten batek egun batean zehar egin bide dituen jarduera guztiak.

Inkesta honetako datuek, beraz, euskal herritarren eguneroko bizitza zehaztasun handiz marraztea ahalbidetzen dute: euren jarduerak banan-banan antolatzea; gizarte-talde guztien artean dauden desorekak aztertzea; eta lanegunetako eta jai-egunetako erritmoen arteko diferentziak zehaztea. Era berean, arazo orokorrako aztertzeko aukera ere ematen dute, hala nola telebistak nolako garrantzia duen gaur eguneko gizartean edo etxeko lanak nola antolatzen eta banatzen diren orain, bai eta beste behar berriago batzuk ere; adibidez, lan ordaindu gabea neurtzea, BPGan sartu ahal izateko.

### INFORMAZIO-ESKAERA

Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)  
Wellingtono Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 18 75 00  
Faxa: 945 18 75 01  
e-mail: eustat@eustat.es  
www.eustat.es

### SOLICITUD DE INFORMACIÓN

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)  
Duque de Wellington, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 18 75 00  
Fax: 945 18 75 01  
e-mail: eustat@eustat.es  
www.eustat.es



Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO